

ENPRESAK SORTU ETA GARATZEKO PROZESUA SUSTATZEKO PROGRAMA

II. Eranskina: TXEKIN – BIDERAGARRITASUN-PLANA

2024KO DEIALDIA

EKINTZAILEAK: KUDEAKETA GIDA

ESKAERA ETA ZURIKETA

Informazio hau arretaz irakurri eta adierazitako jarraibideak bete TXEKIN – BIDEAGARRITASUN PLANA proiektuen kudeaketa zuzena egiteko.

Zalantzarik izanez gero edo argibideren bat behar izanez gero, jar zaitez harremanetan gure zerbitzuarekin, helbide honetan:

sustapena.ekintzailetasuna@gipuzkoa.eus

TXEKIN PROGRAMA

Negozio-idea berriak garatzen laguntzea: ekintzaileei laguntza guztia ematen zaie beren proiektuak definitu eta zehaztu ditzaten eta enpresa bat sortzeko asmoa egia bihurtzea errazago gerta dakien.

Programari esker, enpresa-asmoa aztertzen da, hau da, asmo horren aldaera adierazgarrienak, arriskuak, eta abar, eta hori guztia BIDERAGARRITASUNAREN ETA NEGOZIOAREN PLAN batean hezurramitzen da. Plan hori izanda, errazago da enpresa abian jartzeko finantzaketa bilatzea.

Programa hori [Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak](#) finantzatzen du, eta, programa garatzeko, aholkularitza-zerbitzuak ematen dituzten entitateen sare bat du programak. Aldez aurretik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak homologatu ditu entitate horiek.

BIDERAGARRITASUN-PLANA

Enpresa sortzeko proiektu bat duten eta TXEKIN programan parte hartu nahi duten pertsonak "BIDERAGARRITASUN-PLANA" aholkularitza-zerbitzua emateko [homologatutako entitateetako](#) bat hautatu eta harekin harremanetan jarri beharko dute. Entitate horiek ekintzaileari lagunduko diote prozesuaren fase guztietan.

Enpresa sortzeko aholkularitza zerbitzuaren emateak (Bideragarritasun-plana) – zerbitzu bakoitzeko gehienez 25 orduko dedikazioa aurreikusten du.

- Urteko deialdian eskaera ondoko aplikatiboan egingo da:

<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

- **EKINTZAILEEK (entitate homologatuaren laguntzarekin)**, ondokoa egin beharko dute:
 - **Eskabidea** bete eta dokumentuak erantsi.
 - Proiektua justifikatzea eta eskatutako dokumentuak eranstea.

LAGUNTZEN IZAERA

Laguntzak GAUZAZKO LAGUNTZATZAT hartuko dira, eta enpresa sortzeko prozesuan laguntza jasotzeko eskubidea emango diote onuradunari.

Gauzazko laguntzak direnez:

- Laguntzaren pertsona edo entitate onuradunek ez dute kobratzeko eskubiderik, eta ez dute diru-kopururik jasoko.
- Entitate homologatuek, zerbitzuak ematen amaitu ondoren, emandako zerbitzuaren faktura aurkeztuko diote zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiari. Faktura hori kalkulatzeko, jarduketa-memorian kuantifikatutako jarduerak eta araudi erregulatzailan aurreikusitako moduluak hartuko dira oinarri.

EGUTEGIA: BETE BEHARREKO EPEAK

BIDERAGARRITASUN PLANA			
	ESKAERA	JARDUERAK GAUZATZEKO EPEA	JUSTIFIKAZIOA
2024ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean hasitako proiektuak	2024-07-11ko 13:00ak arte	Gauzatze epea 2024ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2024ko irailaren 30ean amaituko da	2024-09-30
2024ko uztailaren 1etik azaroaren 30era bitartebartean hasitako proiektuak	2024-12-10eko 13:00ak arte	Gauzatze epea 2024ko uztailaren 1ean hasiko da eta 2025eko martxoaren 31n amaituko da.	2025-04-07



ENPRESAK SORTU ETA GARATZEKO PROZESUA SUSTATZEKO PROGRAMA

II. Eranskina: TXEKIN – BIDEGARRITASUN PLANA

EDUKIA

- **ATALA I: APLIKAZIO INFORMATIKORAKO SARBIDEA ETA BIDEGARRITASUN PLANA ESKAERA.**

1. Eskaera egiteko jarraitu beharreko urratsak.
2. IKASEKIN aplikazio infomatikorako sarbidea.
3. Proiektuaren eskaera.

- **ATALA II: PROIEKTUAREN ZURIKETA - BIDEGARRITASUN PLANA.**

1. Zuriketa egiteko jarraitu beharreko urratsak.
2. Proiektuaren zuriketa.
3. Egitasmoaren publizitatea.



ATALA I: APLIKAZIO INFORMATIKORAKO SARBIDEA ETA ESKAERA.

1. ESKAERA EGITEKO JARRAITU BEHARREKO URRATSAK.

①	APLIKATIBOKO SARBIDE–PASAHITZAK ESKATU (aplikatibora lehenengo aldiz sartzen zarenean soilik) http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa
②	JARDUETARAKO SARBIDEA ESKATU: TXEKIN–Bideragarritasun-plana.
③	Ekintzailearen DATUAK OSATU.
④	Proiektuaren ESKAERARI ALTA EMAN.
⑤	ESKABIDEAREN ATAL GUZTIAK OSATU ETA ETA DOKUMENTUAK ERANTSI.
⑥	ESKAERA BIDALI.

2. IKASEKIN APLIKAZIO INFORMATIKORA SARBIDEA.

Ekintzaileak, administrazio eskaera egin aurretik, **weberra sartzeko eskaera eta jarduketara sartzeko eskaera** egin beharko ditu


Horretarako:

1. APLIKATIBOKO SARBIDE–PASAHITZAK ESKATU (1. URRATSA).


Aukeratu: ESKABIDE ESKAERA.



Eskabide mota markatu: **AUTOENPLEGUA**



- Web aplikazioaren bidez ekintzailearen identifikazio eskatutako datuak bete.




- Organo kudeatzaileak TXEKIN programaren onuraduna dela egiaztatu ondoren, webgunera sartzeko gakoak emango zaizkio ekintzaileari, dagokion eskaera egin ahal izan dezan "**TXEKIN – BIDERAGARRITASUN – PLANA**" jarduketaren esparruan.

2. DIRUZ LAGUNGARRIA DEN JARDUERARA SARBIDEA ESKATU: TXEKIN–Bideragarritasun – plana (2. URRATSA).



3. EKINTZAILEAREN DATUAK OSATU (3. URRATSA).



Horretarako, ekintzaileak programan zerbitzuak ematen dituen [entitate homologatu](#) bat hautatu beharko du.

[\(Ikus homologatutako entitateen zerrenda\)](#)

3. PROIEKTUAREN ESKAERA.

1. PROIEKTUAREN ESKAERARI ALTA EMAN (4. URRATSA).

The image shows two screenshots from a web application. The left screenshot shows a menu titled 'PROIEKTUAK' with a red circle around the 'Proiektu berria' option. The right screenshot shows the 'PROIEKTU BERRIA' form, which includes a dropdown for 'Jardura' (set to 'Tasari: Bidagarritasun Plana') and a text input for 'Proiektuaren berezia' (set to 'XXXXX').

2. ESKABIDEAREN ATAL GUZTIAK OSATU ETA ETA DOKUMENTUAK ERANTSI (5. URRATSA).

Pertsona ekintzaileak egin beharrekoa:

2.1.– Eskatutako informazioa bete:

- Ekintzailearen datuak, proiektuaren datuak eta partaideak (Talde sustatzailea eta entitate homologatua).

2.2.– Ondorengo dokumentuak erantsi:

1. Urteko administrazio eskaera.
2. Ardurapeko adierazpena.
3. Ekintzailearen NAN kopia.

3. ESKAERA BIDALI (6. URRATSA).

Eskaera bidali aurretik, mesedez egiaztatu eskatutako informazioa eta dokumentazio guztia bete eta erantsi duzula.

Proiektuaren ESKAERAREN jakinarazpena, BIDALI aukera hautatuz egiten da.

The image shows a screenshot of the 'Proiektuen eskaerak' form. The 'Bidali' button is highlighted with a red circle. The form includes tabs for 'Eskatzailearen datuak', 'Albiduak', 'Proiektuaren datuak', 'Partaideak', and 'Dokumentuak'. There are also buttons for 'Eskatzailearen datuak', 'Albiduak', 'Proiektuaren datuak', 'Partaideak', and 'Dokumentuak'. The form is titled 'ESKATZAILEAREN DATUAK' and includes a 'Bidali' button.



ATALA II: PROIEKTUEN ZURIKETA: TXEKIN-BIDERAGARRITASUN PLANA.



1. ZURIKETA EGITEKO JARRAITU BEHARREKO URRATSAK.

①	ZURE GAKOEKIN SARTU APLIKATIBOAN: http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa
②	“NIRE PROIEKTUAK” AUKERATU. JARDUERA: TXEKIN–BIDERAGARRITASUN-PLANA. EGOERA: ONARTUTA.
③	EGIN KLIK: “AUKERAK” eta aukeratu “PROIEKTUA IKUSI”.
④	AUKERATU: “AMAIERAKO ZIURTAGIRIA”.
⑤	ZURIKETAREN ATAL GUZTIAK OSATU ETA ETA DOKUMENTUAK ERANTSI.
⑥	ZURIKETA BIDALI.

2. PROIEKTUAREN AMAIERAREN ZURIKETA.

Zuriketa hori betetzeko, hautatutako entitate homologatuaren laguntza izango du ekintzaileak.

Horretarako:

1. (5. URRATSA) Ikasekin aplikazioko **AMAIERAKO TXOSTENEAN** eskatutako informazioa beteko da:

-Amaierako ziurtagiriaren txostena.

-Partaideak:

- Talde ekintzailea.
- Entitate homologatua.
- Zerbitzua eman duen entitate homologatuko pertsonaren izen-abizenak.

Honako dokumentu hauek erantsiko dira:


- Dok-1: EGITASMOAREN AMAIERA EGIAZTATZEA.
- Dok-2: BESTELAKO LAGUNTZEN AITORPENA.

- Dok-3: Zerbitzuan emandako ORDUEN DESKARGUA: Bideragarritasun-Plana.
- BIDERAGARRITASUN- PLANA dokumentua erantsiko da.


1. (6. URRATSA) Proiektuaren amaieraren zuriketa bidali.

Amaiera ziurtagiria bidali aurretik, mesedez egiaztatu eskatutako informazioa eta dokumentazio guztia bete eta erantsi duzula.

Proiektuaren **AMAIERA ZIURTAGIRIA**ren izapidetzea, **AMAIERAKO ZIURTAGIRIA BIDALI** aukera hautatuz egiten da.



Proiektuaren **Fasea, Amaiera Ziurtagiria BIDALIT**Ara aldatuko da.



3. EGITASMOAREN PUBLIZITATEA.

Pertsona onuradunek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzazioari publizitate egokia eman beharko dute, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzazio publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenei bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.